



Urnieta  
udala

Espte zk nº expte:  
2025HORO0002

**JAKINARAZPENA:** Data 2025eko urtarrilaren 21a duen Alkatearen 103 zenbakidun dekretua.

**NOTIFICACIÓN:** Decreto del Alcalde nº 103 de fecha 21 de enero de 2025.

**Gaia:** Urnieta baratza ekologikoak uzteko epearen amaiera eta partzelak lagatzeko deialdi berria martxan jarri.

**Asunto:** fin del plazo de cesión de las huertas ecológicas de Urnieta y nueva convocatoria para cesión de las parcelas.

Urnieta baratze ekologikoen esleipena eta kudeaketa arautzen duen Erregelamendua aztertu da, Urnieta Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko abenduaren 22an onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko apirilaren 13an argitaratua. Azken aldaketa GAOn, 2019ko abuztuaren 8koa.

Visto el Reglamento regulador de la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Urnieta, aprobada por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Urnieta el 22 de diciembre de 2015 y publicada en el Boletín Oficial de Guipúzcoa el 13 de abril de 2016. Última modificación BOG de 8 de agosto de 2019.

Zerbitzu eta Mantentze Teknikariak 2025ko urtarrilaren 16n egindako proposamen-txostena aztertu da.

Visto el informe propuesta elaborado por el Técnico de Servicios y Mantenimiento de fecha 16 de enero del 2025.

Horregatik guztiagatik,

Por todo ello,

### EBAZTEN DUT

### RESUELVO

- 1.- Urnieta baratze ekologikoak esleitzeko prozedura arautzen duten oinarri espezifikoak onartzea.
- 2.- Urnieta baratze ekologikoak esleitzeko prozeduraren deialdia egitea.
- 3.-Deialdia iragarki-oholean eta [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus) web-orri instituzionalean argitaratzeko agintzea. Horretarako, 15 egun naturaleko epea emango zaie interesdunei, azken argitalpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, udalaren 49 aisialdiko baratze esleitzeko zozketan onartuak izan daitezzen eska dezaten.

- 1.- Aprobar las Bases Especificas reguladoras del procedimiento de adjudicación de Huertas ecológicas de Urnieta que se anexan.
- 2.- Convocar el procedimiento de adjudicación de las Huertas ecológicas de Urnieta.
- 3.- Ordenar la publicación de la convocatoria en el tablón de anuncios y en la página web institucional [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus) otorgando un plazo de 15 días naturales, contados a partir del día siguiente al de esta última publicación, para que las personas interesadas soliciten ser admitidas en el sorteo para la adjudicación de 49 huertas de ocio municipales.

URNIETAKO BARATZ EKOLOGIKOAK  
ESLEITZEKO PROZEDURA ARAUTZEKO  
OINARRI ESPEZIFIKOAK.

BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DEL  
PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACION DE  
HUERTAS ECOLOGICAS DE URNIETA.

#### 1.- ARAUBIDEA.

#### 1.- REGULACIÓN.

Deialdi hau, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauek arautuko dute:

La presente convocatoria se registrá, además de por lo previsto en la misma, por:

- Urnieta baratze ekologikoen esleipena eta kudeaketa arautzen duen Erregelamendua, Urnieta Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak

- El Reglamento regulador de la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Urnieta, aprobada por la Junta de Gobierno Local del

ESKUFd220c73-bc1c-487b-88b6-af1d9b6f469



Urnieta  
udala

Espte zk nº expte:  
2025HORO0002

2015eko abenduaren 22an onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko apirilaren 13an argitaratua. Azken aldaketa, GAO, 2019ko abuztuaren 8koa da.

- Subsidiarioki, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan jasotako arauak aplikatuko dira.

## 2.- XEDEA.

Deialdi honen xedea da jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezirako baimenak ematea, Udalaren aisialdirako 49 baratze esleituz (40 m<sup>2</sup> lurzati bakoitzeko). Baratze horiek Lategi auzoan daude, Urnieta Baratza Parkean, 03 poligonoko 42. partzela gisa identifikatutako udal-jabetzako landa-partzela batean.

Sozietatearen ondasunaren helburua denez, partzelen ehuneko hauek interes-talde deiturikoentzat gordeko dira:

- Baratzen %30 langabezia daude bizilaguentzat. (15 partzela).
- Baratzen %10 ikastetxe, kolektibo, elkarte eta abarretarako (5 partzela).
- Baratzen %10 familia ugarietarako. (5 partzela).
- Baratzen %3 elbarritasun fisikoak dituzten pertsonentzat egokituko dira. (2 partzela).

Hala ere, Urnieta Udalak egun dauden partzelen %10a gorde ahal izango du gehienez.

## 3.- LAGATZEKO EPEA.

Lurraren aprobetxamendua eta/edo erabilera urtean behin emango da, eta gehienez ere lau urtez luzatu ahal izango da.

Luzapenak adostutzat joko dira, baldin eta alderdietako batek ez badu alde aurretik jakinarazten emakida edo horren ondorengo luzapenak amaitu baino hilabete lehenago.

Esleipendunak, lizentzia-eparean azken hilabetean, baratzea garbi eta hurrengo esleipendunak lantzeko era egokian utzi beharko du.

Ayuntamiento de Urnieta el 22 de diciembre de 2015 y publicada en el Boletín Oficial de Guipúzcoa el 13 de abril de 2016. Última modificación BOG de 8 de agosto de 2019.

- Subsidiariamente, se aplicarán las normas contenidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y Reglamento de Bienes de las entidades locales.

## 2.- OBJETO.

Es objeto de la presente convocatoria el otorgamiento de autorizaciones de uso común especial de bienes de dominio público a través de la adjudicación de 49 huertos (40 m<sup>2</sup> cada parcela) de ocio municipales ubicados en el barrio de Lategi, URNIETAKO BARATZA PARKEA, parcela rural de propiedad municipal identificada como parcela 42, del polígono 03.

Siendo el fin que se persigue de bien social se reservarán los siguientes porcentajes de parcelas para los siguientes colectivos denominados Grupos de interés:

- 30% de las huertas para vecinas o vecinos en desempleo. (15 parcelas).
- 10% de las huertas para colegios, colectivos, asociaciones, etc. (5 parcelas).
- 10% de las huertas para familias numerosas. (5 parcelas).
- 3% de las huertas serán adaptadas a personas con discapacidades físicas. (2 parcelas).

No obstante, el Ayuntamiento de Urnieta podrá reservar hasta un máximo del 10% de las parcelas existentes.

## 3.- PLAZO DE CESION.

El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de cuatro años.

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de concesión o de sus sucesivas prórrogas.

La persona adjudicataria deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por la siguiente persona



Urnietako  
udala

Espte zk nº expte:  
2025HORO0002

#### 4. – BAIMENAK LORTZEKO BALDINTZAK.

Urnietako Baratza Parkeko baratze ekologikoak okupatzeko lizentzien onuradun izan ahalko dira esleipenerako deialdiaren iragarkia argitaratu aurretik Urnietako udalerrian gutxienez urtebetez erroldatuta dauden pertsonak eta, gainera, baldintza hauek betetzen badituzte:

1.-Urnietako Udalarekin zerga-betebeharrak edo bestelakoak ordainduta izatea.

2.-Beste baratze ekologiko baten erabiltzaileen familia-unitateko kide ez izatea.

3.-Eskatzaileak edo familia-unitateko inork nekazaritza-jardueretarako egokiak diren landa-lurrik ez edukitzea edozein lekutan.

4.-Aisialdiko baratze ekologikoak lehenago edukitzeagatik zehapenik jaso ez izana, erregelamendu honetan aurreikusitakoa ez betetzeagatik.

Adingabeen eskaerek aitaren, amaren edo tutorearen bermea izan beharko dute, eta helduak izango du erregelamendu honen ondorioetarako ardura

#### 5.- BAIMENAK EMATEKO PROZEDURA.

Baratzeak okupatzeko gaitzen duten eta haiek erabiltzeko eta gozatzeko ahalmena ematen duten lizentziak emateko prozedura lehia-araubidez egingo da, lizentzien kopurua mugatua denez, onartutako eskabide guztien artean zozketa eginez

#### 6.- ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA.

Baratze ekologiko baten esleipendun izateko interesa duen pertsonak, eskabidea aurkeztu beharko du eredu ofizialaren arabera (l. eranskina), Udal-erregistroan, Bertan bulegoan, eskatutako dokumentazio osagarriarekin batera.

Ez da eskabide bat baino gehiago onartuko familia-unitate bakoitzeko.

adjudicataria.

#### 4. - REQUISITOS PARA LA OBTENCIÓN DE LAS AUTORIZACIONES.

Podrán ser beneficiarios y beneficiarias de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de Urnietako Baratza Parkea, las personas empadronadas en el Municipio de Urnieta durante al menos un año antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación, y que cumplan además con los siguientes requisitos:

1.-Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Urnieta.

2.-No ser miembro de la unidad familiar de las personas usuarias de otro huerto ecológico.

3.-No tener en propiedad ni quien solicita ni ninguna persona de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en cualquier lugar.

4.-No haber sido sancionado o sancionada en razón a la posesión anterior de huertos ecológicos de ocio por incumplimiento previsto en el presente Reglamento.

Las solicitudes de las personas menores de edad deberán venir avaladas por el padre, madre, tutor o tutora, siendo la persona adulta la responsable a efectos de este Reglamento.

#### 5.- PROCEDIMIENTO DE OTORGAMIENTO DE LAS AUTORIZACIONES.

El procedimiento aplicable al otorgamiento de las licencias que habiliten para la ocupación de los huertos, y faculden para su uso y disfrute, se realizará en régimen de concurrencia, dado el número limitado de las mismas, mediante sorteo entre todas las solicitudes admitidas.

#### 6.- LUGAR PARA PRESENTACION DE SOLICITUDES.

La persona interesada en la adjudicación de los huertos ecológicos deberá presentar solicitud con arreglo al modelo oficial (Anexo I) junto con la documentación complementaria requerida en el Registro municipal, Bertan bulegoa.

No se admitirán más de una solicitud por unidad familiar.

ESKUD20c73-bc1c-487b-88b6-aff1d9b6f469



#### 7.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. NANaren edo legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
2. Eskabidea aurkeztu duen elkargo, kolektibo edo elkartearen ordezkari duela egiaztatzen duen agiria, hala badagokio.
3. Langabezian egotearen egiaztagiria, hala badagokio.
4. Familia ugariaren titulua, hala denean.
5. Minusbaliotasun-ziurtagiria, hala badagokio.
6. Urnietan baratze ekologikoak esleitzeko prozedura arautzen duten oinarrietan xedatutakoa betetzen dela dioen zinpeko aitortpena, eskabide ofizialean (i. eranskina) jasotako ereduaren arabera.

Udalak ofizioz egiaztatuko du duela urtebetetik erroldatuta dagoela eta benetan bizi dela, arau-hausterik egin ez duela eta udal honekiko zerga-betebeharrak edo bestelakoak egunean dituela.

#### 8.- ESKUMENA ETA PROZEDURA.

- Baimenak emateko prozedura Alkateak ebatziko du.
- Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Ondoren, onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda onartuko da, baita erreserbako zerrenda ere; zerrenda hori iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da.
- Interesdunek 15 egun naturaleko epean aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak.

Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda jasotzen duen ebazpena emango da

#### 9.- ZOZKETA

Lekaio Kultur Etxeko areto nagusian egingo da 49

#### 7.- DOCUMENTACION A APORTAR JUNTO CON LA SOLICITUD

Junto con la solicitud se deberá presentar, la siguiente documentación:

1. Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.
2. Documento que acredite que ostenta la representación del colegio, colectivo o asociación que presenta la solicitud, en su caso.
3. Justificante de estar en situación de desempleo, en su caso.
4. Título de familia numerosa, en su caso.
5. Certificado de minusvalía, en su caso.
6. Declaración jurada, según modelo que se incluye en la solicitud oficial (Anexo I), del cumplimiento de lo dispuesto en las bases reguladoras del procedimiento para la adjudicación de huertas ecológicas en Urnieta.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y la residencia efectiva desde hace un año, la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.

#### 8.- COMPETENCIA Y PROCEDIMIENTO.

- El procedimiento de concesión de licencias se resolverá por la Alcaldía.
- El plazo para presentar instancias es de 15 días naturales a contar desde el día siguiente al de su publicación.
- A continuación, se aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas, y lista de reserva, que se publicará en el Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento.
- Las personas interesadas podrán presentar reclamaciones en el plazo máximo de 15 días naturales.

Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de personas admitidas y excluidas.

#### 9.- SORTEO

Se celebrará el sorteo público para la adjudicación



Urnieta  
udala

Espte zk nº expte:  
2025HORO0002

baratze esleitzeko zozketa publikoa.

Zozketatuko diren 49 baratzeak honako talde hauetan banatuko dira:

A.- DESGAIUAK: 2 partzelak esleituko dira, horietako bat taldearen ezaugarriei erantzuteko egokitua.

B.-LANGABETUAK: 15 partzela esleituko dira.

C.- IKASTETXEAK, TALDEAK, ELKARTEAK: 5 partzela esleituko dira.

D.- FAMILIA UGARIAK: 5 partzela esleituko dira.

E.- KUPO OROKORRA: 22 partzela esleituko dira.

Onartutako eskatzaile bakoitzari zenbaki bat emango zaio, hurrenkera alfabetikoaren arabera.

Zozketarako, multzo bakoitzean esleitu beharreko partzela kopurua adina bolaz osatutako bonbo bat izango da. Zenbaki bakoitza baratze batekin bat etorriko da

Eskatzaile bakoitzak zenbaki bat izango du, boto-paperetan jasoko den hurrenkera alfabetikoari jarraituz, eta horiek poltsa batean sartuko dira. Eta bestetik bingoa izango dugu baratzetako zenbakiekin

Esleipenak taldeka egingo dira. Esate baterako, A Taldeari dagokionez, desgaituak; egokitutako baratzeari dagokion 1 zenbakia gehi gainerako lurzati zenbakiak izango ditu bonboak. Baratz-zenbakia aterako da alde batetik, eta talde horretako eskatzaileen zenbakiak dituen poltsako boto-papera, bestetik. Esleipendun izan ez den eskatzailea zozketan sartuko da, eta talde orokorra osatzen duten eskatzaileen artean egingo da zozketa hori.

Jarraian B Taldeari dagokion zozketa egingo da, langabetuak. Esleipendun izan ez den eskatzailea zozketan sartuko da, eta talde orokorra osatzen duten eskatzaileen artean egingo da zozketa hori.

Ondoren, familia ugariko C taldeari dagokion zozketa egingo dute. Esleipendun izan ez den eskatzailea zozketan sartuko da, eta talde orokorra

de 49 huertas en la Sala Polivalente de la Casa de Cultura Lekaio.

Las 49 huertas a sortearse se repartirán en los siguientes grupos:

A.- DISCAPACITADOS: Se asignarán las 2 parcelas, una de ellas adaptada para atender a las características del grupo.

B.-DESEMPLEADOS: Se asignarán 15 parcelas.

C.- COLEGIOS, COLECTIVOS, ASOCIACIONES: Se asignarán 5 parcelas.

D.- FAMILIA NUMEROSA: Se asignarán 5 parcelas.

E.- CUPO GENERAL: Se asignarán 22 parcelas.

A cada uno de los solicitantes admitidos se le atribuirá un número conforme al orden alfabético.

Para el sorteo se contará con un bombo compuesto por tantas bolas como número de parcelas a asignar en cada uno de los grupos. Cada número se corresponderá con una huerta.

Cada solicitante tendrá un número siguiendo el orden alfabético que se recogerá en papeletas, que se introducirán en una bolsa. Y por otra parte tendremos el bingo con los números de las huertas.

Las adjudicaciones se harán por grupos. Así, por ejemplo, en relación con el Grupo A-discapacitados; el bombo se compondrá del nº 1 que se corresponde con la huerta adaptada más un número del resto de parcelas y se sacará el número de huerta por una parte y por la otra se sacará la papeleta de la bolsa que contiene los números de los solicitantes de ese grupo. El solicitante que no haya resultado adjudicatario pasará a formar parte del sorteo a realizarse entre los solicitantes integrantes en el Grupo general.

Seguidamente se realizará el sorteo correspondiente al Grupo B, desempleados. El solicitante que no haya resultado adjudicatario pasará a formar parte del sorteo a realizarse entre los solicitantes integrantes en el Grupo general.

A continuación, se realizará el sorteo correspondiente al Grupo C, familia numerosa. El solicitante que no haya resultado adjudicatario

ESKUFd220c73-bc1c-487b-88b6-aff1d9b6f469



Urnieta  
udala

Espte zk nº expte:  
2025HORO0002

osatzen duten eskatzaileen artean egingo da zozketa hori.

Amaitzeko, D multzoko kupo orokorreko zozketa egingo da. Bonboa aurreko taldeetan esleitu ez diren lurzati zenbakituz osatuko da, eta alde batetik baratze-zenbakia aterako da eta bestetik talde horretako eskatzaileen zenbakiak jasotzen dituen poltsako txartela aterako da; bertan, gainerako taldeetan esleipendun izan ez diren eskatzaileak sartuko dira.

#### 10.- ESLEIPENDUNEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ETA ERRESERBA-ZERRENDA.

Zozketa egin ondoren, esleipen-zerrenda eta behin betiko erreserba-zerrenda argitaratuko dira, eta udaletxeko iragarki-taulan (udaletxean) eta Urnieta Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Baratze guztiak esleitu ondoren, ITXARON-ZERRENDA egingo da esleipendun izan ez diren eskatzaileen izenekin. Hori guztia, zozketan ateratako jarreraren arabera. Bajak estaltzeko erabiliko da, lizentzia ematearen bidez emandako eskubideari uko egiten zaionean edo eskubide hori nahita edo nahitaez galtzen denean.

Zerrendetako edozeinetan agertzen diren pertsonen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte bost (5) egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak aurkezteko epeak igarotakoan, eta, hala badagokio, horiek ebatzitakoan, Alkateak erabakia hartuko du zerrenda behin betiko bihurtzeko.

Esleitutako baratzeak erabilgarri daudenean, esleipendunei jakinaraziko zaie baratzeen esleipena, eta hiru eguneko epea emango zaie uko egin edo esleipena onartu ahal izateko. Uko egitea idatziz egingo da Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduren batean.

pasará a formar parte del sorteo a realizarse entre los solicitantes integrantes en el Grupo general.

Para finalizar se realizará el sorteo correspondiente al Grupo D, cupo general. El bombo se compondrá de las parcelas numeradas que no se hayan adjudicado en los grupos anteriores y se sacará el número de huerta por una parte y por la otra se sacará la papeleta de la bolsa que contiene los números de los solicitantes de ese grupo; en el que se incluirán los solicitantes que no han sido adjudicatario en el resto de los grupos.

#### 10.- LISTA PROVISIONAL Y DEFINITIVA DE PERSONAS ADJUDICATARIAS Y LISTA DE RESERVA.

Efectuado el sorteo, se publicará la lista de adjudicación y la lista de reserva definitiva, publicándose en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento sito en la Casa Consistorial y en la página web del Ayuntamiento de Urnieta.

Una vez adjudicadas todas las huertas se elaborará la LISTA DE ESPERA con los nombres de los solicitantes que no han resultado adjudicatarios. Todo ello conforme a la posición que haya sido resultante en el sorteo y que será utilizada para cubrir bajas para los casos de renuncia o pérdida voluntaria o forzosa del derecho otorgada a través de la concesión de la licencia.

Aquellas personas que figuren en cualquiera de las listas podrán realizar reclamaciones frente a la misma en el plazo de cinco (5) días hábiles a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Transcurridos los plazos establecidos para presentar reclamaciones, y en su caso, resueltas las mismas, el Alcalde adoptará acuerdo elevando la lista a definitiva.

Una vez que las huertas adjudicadas se encuentren disponibles, se comunicará a las personas adjudicatarias, la adjudicación de los huertos y se les otorgará un plazo de tres días para poder renunciar o aceptar la adjudicación. La renuncia se hará por escrito en el servicio de atención ciudadana BERTAN del Ayuntamiento o por cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la ley 39/2015 de 1 de octubre del procedimiento Administrativo Común de las

ESKUD20c73-bc1c-487b-88b6-aff1d9b6f469



Baratzeen behin betiko esleipena Alkatetzaren ebazpen bidez egingo da. Ebazpen horretan, halaber, baratzeren baten esleipendun izan ez diren pertsonak osatutako erreserba-zerrenda onartuko da.

#### 11. – MANTENTZE- ETA FINANTZAKETA-GASTUAK

1. Baratzea erabiltzen duen pertsonak bere gain hartu beharko ditu baratzea lantzeak dakartzan gastuak, lizentzia indarrean dagoen denboraldi osoan; besteak beste, ongariak, ereindako landareak eta laborerako beharrezkoak diren gainerakoak. Landaketa egokia izango da ekoizpenerako, eta behar bezala zainduko da.

2. Udalak baratzeke lanerako kuota bat ezarriko du, eta baita herri jabariko gunea modu egokian erabiltzen dela ziurtatzeko fidantza bat ere. Urteko kanona urtarrilaren 1ean edo udal-baimena ematen den unean sortuko da. Alta edo baja berrietan, nahiz eta urte osoan ez erabili, urteko kanona ordaindu beharko da. Kopuruak honako hauek izango dira.

a) Kanona: 50 euro 40 metro koadroko baratzea erabiltzeagatik (urtekoa).

b) Fidantza: 100 euroko fidantza jarri beharko da, jabari publikoa modu egokian erabiltzen dela ziurtatzeko. Fidantza hori itzuliko da lagapena behin betiko amaitzen denean, baldin eta atxikitzeke arrazoirik ez badago.

Oro har, baratzea erabiltzeko udal lizentzia ematen den unean bertan, lehen urteko kanona eta fidantza ordaindu beharko dira.

Tratamendu bereziko taldeen erabiltzaileek honako abantaila hauek izango dituzte:

— Langabeek 10 euroko kanona eta 30 euroko fidantza. Hala ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten langabeek ez dituzte kopuru horiek ordaindu beharko.

— Elkarteak: urteko 25 euroko kanona eta 50

Administraciones Públicas.

La adjudicación definitiva de las huertas se realizará mediante Resolución de Alcaldía aprobando igualmente la lista de reserva integrada por aquellas personas que no hayan resultado adjudicatarias de alguna huerta.

#### 11. – GASTOS DE MANTENIMIENTO Y FINANCIACION

1. La persona usuaria del huerto debe hacerse cargo de los gastos que comporte el cultivo del huerto en toda la temporada de vigencia de la licencia, como los abonos, las plantas sembradas y demás necesarias para el cultivo y manteniendo la plantación apta para la producción y en condiciones de cuidado debidas.

2. El Ayuntamiento impondrá una cuota para el trabajo de la huerta, y una fianza para asegurar que la zona de dominio público se utiliza de forma adecuada. El devengo del canon anual se realizará el 1 de enero o en el momento en el que se conceda la licencia municipal. En las nuevas altas o bajas, aunque no se haga uso de todo el año, se deberá de abonar el canon anual. Las cantidades serán las siguientes.

a) Canon: 50 euros por el uso de la huerta de 40 metros cuadrados (anual).

b) Fianza: Se deberá depositar una fianza de 100 euros, para asegurar que el dominio público se utiliza de forma adecuada. Esa fianza se devolverá una vez que la cesión se finalice definitivamente, siempre que no haya razones para su retención.

En general, se pagarán el canon y la fianza del primer año, en el momento mismo en que se conceda la licencia municipal para el uso de la huerta.

Las personas usuarias de grupos de especial tratamiento tendrán las siguientes ventajas:

— Las personas desempleadas un canon de 10 euros anual y una fianza de 30 euros. Aun así, las personas desempleadas que perciban la renta de garantía de ingresos no deberán de pagar esas cantidades.

— Las asociaciones: un canon de 25 euros anual y



Urnietako  
udala

Espte zk n° expte:  
2025HORO0002

euroko bermea

— Familia ugariak: urteko 25 euroko kanona eta 50 euroko bermea. "

Langabeen kasuan, langabeen tarifa murriztua aplikatzen jarraitu ahal izateko, urte bakoitzeko urtarrilaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dute beren lan-bizitza udaletxeko erregistro orokorrean, langabezia daudela frogatzeko, bestela kanon orokorra aplikatuko zaie.

## 12.- BARATZEAK KUDEATZEKO ELKARTEAN SARTZEA

Behin betiko esleipendunak behartuta egongo dira elkarte bat eratzeraz horiek kudeatzeko, eta pertsona bat izendatzera udaleko kudeaketa-arduradunarekin zuzeneko harremana izateko. Bozeramaile hori arduratuko da erabiltzaileen zalantzak, arazoak eta abar jasotzeaz.

Horrez gain, Urnietako Baratzak Parkearen funtzionamendu egokia zaintzea eta gutxieneko mantentze lanak egitea izango dira elkartearen helburuak.

### Erabaki honen kontra egiteko moduak

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziotik dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegi egokian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Herri Administrazioen Araubide Juridiko Arruntaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Urnietako, 2025eko urtarrilaren 21a.

Idoia Arévalo Benito, Idazkaria.

una fianza de 50 euros.

— Las familias numerosas: un canon de 25 euros anual y una fianza de 50 euros.»

En el caso de las personas desempleadas, para poder seguir aplicando la tarifa reducida de las personas desempleadas, deberán de presentar su vida laboral antes del 20 de enero de cada año en el registro general del ayuntamiento, para demostrar que están en paro, ya que si no se les aplicará el canon general.

## 12.- INTEGRACION EN LA ASOCIACION PARA LA GESTION DE LAS HUERTAS

Las personas adjudicatarias con carácter definitivo estarán obligadas a constituir una asociación para la gestión de la mismas, y a designar una persona para el contacto directo con el responsable de gestión del Ayuntamiento. Este portavoz se encargará de recoger las dudas, problemas, etc. de las personas usuarias.

Además, serán objetivos de la asociación salvaguardar el funcionamiento correcto de Urnietako Baratzak Parkea y realizar un mínimo de mantenimiento.

### Modo de oponerse a esta resolución

Contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá Vd. interponer en el plazo de DOS MESES, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo que corresponda de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, a tenor de lo establecido en los Arts. 8 y 46 de la Ley 29.1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el Art. 114 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá Vd., interponer RECURSO DE REPOSICION, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Urnietako, 21 de enero de 2025.

Idoia Arévalo Benito, Secretaria.





## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025HORO0002-JAKINARAZPENA alkatea/NOTIFICACION alcalde (URNIETAKO